

## **Euskaltzainburu jaunak egiten duen adierazpena**

Euskaltzaindiari eta Euskaltzaindiaren lanei buruz gure artean gero eta gehiago zabaltzen ari diren eta egiazko ez diren jardunak ikusirik, beronen Lehendakari bezala, adierazpen hau egin beharrean aurkitzen naiz. Euskaltzaindiak berak joan den abenduaren 29an Bilbon egindako batzarrean eskatu zidan agerpen hau egitea, sortu nahi den giroa kontuan edukiz.

---

Euskaltzaindia Instituzio bat da, 1918. urtean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lau Diputazioen babespean sortua. Helburu eta xede bezala du euskeraren alde lan egitea, hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea, ta abar. Euskal Herriko eskualde, euskalki eta euskera mota guztien ordezkarriak daude bertan.

Euskaltzaindiak kultur-jakintzaz bakarrik du zer ikusi eta deus ez politikaz ezta inongo taldekeriaz ere. Pluralismorik jatorrena egon da beti eta dago orain ere haren barnean.

Euskaltzaindiak garbi ikusi du beti euskera herri baten ondasuna dela, eta herri osoarena, gainera, eta hain zuzen horrexegatik, ez du nahi ondasun hori talde baten eskuetan eror dadin.

Bide horretan barrena ibili da beti Euskaltzaindia eta dabil orain ere.

Gizonen artean gehienetan gertatzen den bezala, Euskaltzaindiaren barrenean ere, hizkuntza arazoetan, euskaltzain guztiak iritzi

bereko ez izatea, gerta daitekeena da, eta horrek ez gaitu bat ere harritu behar. Edozein Instituziotan egunoro gertatzen da hau, baina horregatik egin behar duena egin gabe ere ez du egon behar. Egotzi zitzaizkion betebeharak ez lituzke beteko eta.

---

Sorrera egunean berean eskatu zitzaion Euskaltzaindiari (eta honen zeregin nagusien artean hala azaltzen da orduko Arautegian. Begira 6. a): «Ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa».

Ez gara hemen hasiko 50 urtetan zehar arazo hontaz egin diren lan eta agertu diren asmo eta iritzien kontu ematen. Euskaltzaindiak berak, ordea, ez zuen sekula agiririk eman, edo gauza aski heldua ikusten ez zuelako, edo orduko gizarte egoeran horrelako asmo bat aurrera eramateko biderik ageri ez zelako.

Euskaltzaindia sortu zeneko 50 urteak ospatzekoan, ordea, berriz ere pundu hau aztertu eta, ahal bazen, erabaki behar zela pentsatu zen. Izan ere, gure herriak azken urteotan ezagutu dituen al-daketokin, problema honi soluzioa ematea beharreko ez eze, premiatsu eta luza ezina ere bilakatu da. Eta beste aldetik gertatu den euskal istudioen berriztapenak problema hau behar bezalako jakitate, zentzu eta zabaleraz erabakitzeko esperantza utzen zuen.

Hoiek hola, Euskaltzaindiak Biltzar bat antolatu zuen, berariaz gai honi eskeinia. Biltzar hau Arantzazun egin zen 1968ko urrian. Biltzarra bukatzerakoan, euskaltzain osoek elkarrekin bildu eta agiri bat idatzi eta onartu zuten. Arantzazuko agiri hortan ortografia, izenen deklinazio eta hiztegiari dagozkion zenbait pundu ukitzen dira.

Agiri hura irakurri besterik ez dago kontseilu edo gomendio gisa emana dela ikusteko. Ez da inor behartzen iritziz aldatzera, beste pentsamolde bat izateko eskubidea ez zaio inori kentzen, euskera idatziaren batasuna lortzeko beste bide egokiago bat bilatzea edo propositzaea ez zaio inori galerazten.

Gauza bat ezin egin daiteke, ordea: Euskaltzaindiak ez duela bat ere agiririk eman, esan; edo Agiri horren balioa dudatan ipini,

batez ere Euskaltzaindiaren aldizkarian bertan Biltzar hartako lan eta agiriekin batean datorrenez gero («Euskera» 1968, 250 orrialdean). Eta hain zuzen, horrelako gauzak esaten zirelako Euskaltzaindiak, 1970ko uztailaren 29ko batzarrean, Agiri hura berea zuela berriro aitortu behar izan zuen. (Ikus «Euskera», 1971, 99 orrialdean).

---

Beste gauza bat erruz eta maila orotan (baita erlijio eta pastoral mailatan ere) zabaltzen dute Euskaltzaindiaren batasun bideari ateak itxi nahi dizkiotenak: bide hori ateoena dela edo erlijio ga-beena.

Asmazio honek ez du ez buru eta ez buztanik, ez itxurarik, ez egiarik ez egia antzik ere. Alde hortatik gezurtatzea ere ez luke merazi. Baino behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egiaren alde aurpegia ateratzera behartua nago. Neure indar eta ahal guztiaz salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Arazo honek hizkuntzaz bakar-bakarrik du zer ikusi, eta deus ez erlijioaz, fedeaz edo politikaz. Bakoitzak eskubide osoa du bere pentsakera edo ikus-molde berezia izateko euskera idatziaren batasun kontuan. Baino Jainkoren amorioarren! ez daitezela zeruko gauzak eta lurrekoak berriro nahas.

Eliz gizona naizen aldetik, min handia ematen dit erlijioa beste zer-edo-zerren morroi hartu nahi izate horrek. Badakigu joko hoiek ez diotela erlijioari mesede onik egin orain arte; aitzitik, erlijioarentzat kaltegarri izan dira, batez ere gerora eta luzarora begiratuaz. Azken Kontzilioak bere arreta guztia ipini du erlijioaren hauzia bestelako arazoekin katigatua ager ez dadin. Gure artean, berriz, hori egin nahi da berriz ere. Erlijioaren izenean, erlijioaz zer ikusi ez duen gauza bati gerra egin nahi zaio, alegia. Hortarako ez dago eskubiderik.

Ipar eta hegoaldeko euskaldunen artean idazkera bateratzeko, «h» letra hartza gomendatu zuen Euskaltzaindiak. Ez da, beraz, letra hori ezeren bandera; gehienez ere izan daiteke batasunaren bandera, eta inork ez du eskubiderik, ez alde batetik ez bestetik, hori ezeren banderatzat hartzeko.

Euskaltzaindiak —berriz ere esango dut— ez dio inori hizkuntza arazoetan bere iritzi edo ikusmoldeak defenditzeko eskubidea kentzen. Baino herriaren zerbitzutan eta sortu zenean bere bizkarrean artutako eginbeharrok bete nahiean egiten dituen lanak hondatzeko eta behera botatzeko erabiltzen diren harmak ikusirik, adierazpen hau egin beharrean aurkitu da. Egintza hauet salatu egin behar ziren eta hala egiten dugu.

*Aita Luis Villasante Kortabitarte, O.F.M.*

Euskaltzaindiaren Lehendakaria,

Arantzazuko Amaren Santuarioan, 1973, urtarrilak 1

---

## COMUNICADO DEL PRESIDENTE DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Ante las campañas que de un tiempo a esta parte se vienen desarrollando en torno a la Academia de la Lengua Vasca y a sus trabajos, como Presidente de esta Institución me veo precisado a salir por los fueros de la verdad. Fue la misma Academia la que en vista del ambiente que se quiere crear, me encargó, por acuerdo adoptado en sesión celebrada en Bilbao el pasado 29 de diciembre, hiciera la presente declaración.

---

La Academia de la Lengua Vasca es una Institución fundada en 1918 bajo los auspicios de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya para velar por la lengua vasca, fomentar su estudio y uso, dar orientaciones para su cultivo literario, etc. En dicha Academia tienen entrada representantes de todas las regiones históricas del país y de todos los dialectos y variedades de la lengua vasca.

Por su misma índole, la Academia es una entidad puramente científico-cultural, apolítica, no enfeudada a partidismos. En su seno se da cabida al más legítimo y sano pluralismo.

La Academia ha comprendido siempre que el euskera, como lengua de un país, es un bien o patrimonio de todos, que, en consecuencia, no debe ser monopolizado por un sector, partido, clase, confesión, etc.

Dentro de esta línea ha trabajado siempre y trabaja en la actualidad.

Como en toda institución humana, es normal que también dentro de ella haya a veces discrepancias respecto a determinados problemas lingüísticos o literarios. Pero esto, naturalmente, no debe ser parte para paralizar la Institución, so pena de volverla inoperante y de incumplir los fines para los que se fundó y por los que tiene razón de existir.

---

A la Academia se le pidió desde su creación (y ello se refleja en los mismos Estatutos fundacionales. Véase art. 6.<sup>º</sup>, a): «Trabajará preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común».

No vamos a hacer ahora el recuento de la larga serie de estudios, proyectos, etc., que a lo largo de 50 años se han propuesto para dar cumplimiento a este encargo, sin que la Academia llegara nunca a tomar acuerdo alguno sobre el particular, sin duda por no ver suficientemente maduro el problema, o porque en el contexto sociológico de aquellos años (no tan lejanos, pero sí ya muy distintos de los actuales) el proyecto no parecía viable en la práctica.

Al cumplirse los 50 años de la fundación de la Academia, ésta creyó conveniente reconsiderar de nuevo el problema y tratar de darle solución. La transformación sociológica del país en las últimas décadas hacía más urgente e inaplazable la solución del mismo. La renovación de los estudios vascos ofrecía también esperanzas de poder abordarlo y solucionarlo ahora con las debidas garantías.

En consecuencia, la Academia preparó un Congreso destinado exclusivamente al estudio del tema, que se celebró en Aránzazu en octubre de 1968. A la conclusión del mismo, los académicos de nú-

mero, reunidos a puerta cerrada, redactaron y dieron su conformidad a un comunicado o acuerdo final. Los puntos contenidos en este Acuerdo de Aránzazu se refieren a la ortografía, a la declinación y al léxico.

Es claro, y ello se deduce del tenor del Acuerdo, que se trata de una recomendación. A nadie se le obliga a renunciar a su propio punto de vista, a nadie se le niega el derecho a discrepar, ni se le prohíbe buscar o proponer otros caminos para llegar a la lengua escrita común.

Lo que no se puede hacer es negar la existencia del Acuerdo o poner en duda su validez, tanto más cuanto que se publicó juntamente con las Actas y trabajos del mencionado Congreso en «Euskera», órgano oficial de la Academia, 1968, página 250. Ante las campañas que se hacían, la misma Academia, en sesión de 29 de julio de 1970, se vio obligada a reafirmar que aquel acuerdo era suyo, y se insertó de nuevo en «Euskera», 1971, página 99.

---

Otra cosa que se repite con insistencia y en diversos sectores (incluso el pastoral-religioso) para desacreditar el camino propuesto por la Academia, es decir que el tal camino o plan es cosa de ateos o de signo antirreligioso.

La especie es tan burda, tan falta de consistencia y a todas luces falsa, que ni merecería pararse a desmentirla, si no fuera por la insistencia con la que se la propala y difunde. Protesto con toda energía que esto es una solemne falsoedad y calumnia. Se trata de un asunto puramente lingüístico que nada tiene que ver con la fe religiosa ni con credos políticos. Cada uno podrá ser libre de pensar como guste en el asunto de la lengua escrita común. Lo que pedimos es que no se vengan a mezclar una vez más las cosas divinas y las humanas.

Como hombre de Iglesia me duele particularmente que así se instrumentalice a la religión para ponerla al servicio de otros intereses. La Iglesia tiene plena conciencia del flaco servicio que estos procedimientos han hecho a la religión en el pasado, pues ella es la

que a la larga sale perdiendo. Precisamente cuando el Concilio Vaticano II ha puesto todo su énfasis en desolidarizar la causa de la religión de otras causas o cuestiones ajenas a ella, es incomprendible que entre nosotros puedan proliferar y tomar cuerpo tales campañas.

Concretamente y respecto al uso de la letra «h» que la Academia recomendó para superar la dualidad ortográfica existente entre los vascos de ambas vertientes pirenaicas, es claro que su empleo no es bandera de nada, ni de nadie, y que ninguno tiene derecho a tomarlo como símbolo distintivo de otra cosa que de la unificación literaria propiciada por la Academia.

La Academia, repito, a nadie niega ni puede negar el derecho a defender sus propios puntos de vista literarios o lingüísticos; pero se ha visto obligada a hacer esta declaración en vista de las armas a que se recurre para combatir y torpedear una obra que, en cumplimiento de su deber y en servicio al país, quiere llevar a cabo, totalmente en conformidad con los compromisos que ante éste contrajo al ser fundada. Estos hechos debían ser denunciados y así lo hacemos.

*Fr. Luis Villasante Cortabitarte, O.F.M.*

Presidente de la Academia de la Lengua Vasca  
Santuario de Ntra. Sra. de Aránzazu, 1 de enero de 1973